

# Prentsa oharra

## Nota de prensa

### Donostiak autokarabana kanpin berri bat izango du Oriamendin

*Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako beste gai batzuk: Udaltzaingoa, Bidebietako bidegorria*

Donostiako Udalak onartu du Oriamendi Berri Grupo SLri lizentzia ematea Goiaztxikiko bidean (142. zk.) 1. mailako kanpina (autokarabanak) eraikitzeko. 39.787 m<sup>2</sup>-ko partzela da, gaur egun Oriamendi Lorezaintza Zentroko negutegiek okupatzen dutena eta aparkaleku asfaltatua duena.

Eneko Goia alkateak azpimarratu duenez, “ekipamendu berri honek hirian asko eskatzen den zerbitzua eskainiko du, eta mota honetako ibilgailuek aparkatzeko erabiltzen dituzten beste gune batzuk liberatzea ahalbidetuko du, trafikoa eta aparkalekua modu eraginkorragoan ordenatzea ahalbidetuz. Gainera, ostatu hartzeko aukera jasangarriagoa eta naturan integratuagoa eskainiko du”.

Proiektuak Lehen Mailako Kanpina (autokarabanak) proposatzen du, erabat berdea, ingurunean integratua, lurzati berdeekin, aisialdirako guneekin eta igerilekuarekin, kokapenaren baldintzak ahalik eta gehien aprobetxatzeko. Halaber, gutxienez 110 zuhaitz perimetral berri eta hegoaldeko lurzatiaren barruan 74 zuhaitz berri landatzea aurreikusten da.



# Prensa oharra

## Nota de prensa



Kanpatzeko eremuan, 60 eta 70 m<sup>2</sup>-ko 109 partzela sortu dira, eta mobilhome-entzako eremuan, autokarabanarik ez duten erabiltzaileentzako 20 partzela ekipatutak sortu dira. Gainera, autoentzako 11 aparkaleku eta autokarabanentzako 6 aparkaleku aurreikusi dira, baita 24 bizikletarentzako aparkaleku bat ere.

Kanpinak honako zerbitzu hauek izango ditu: harrera, kafetegia, jatetxea, gimnasioa, aisialdi guneak, gimnasioa, supermerkatua, sendaketa gela, komunak, dutxak, autokarabanak husteko gunea, piknik gunea edo haurrentzako jolasgunea.

Garraio publikotik gertu dagoen konexioa nabarmendu behar da, baita hiriaren erdiguneraino 15 minutu eskasetan bidegorri bat izatea ere. Horrela, Erdialdeko gune pilotuenetatik hobeto zirkulatu ahal izango da, eta alternatiba jasangarriagoak ahalbidetzen ditu, ostatu hartzaileek hirigunera ibilgailu propiorik gabe sartu ahal izan daitezen.

Beste faktore garrantzitsu bat hirira sartzeko autobia nagusietatik iristeko duen irisgarritasuna da; izan ere, autokarabana handiek ez dute eremua beteko eta ez dute hiriaren erdigunetik igaro beharko kanpinera iristeko. Gainera bi bideko errepidea izango dute kanpinera joateko.

Azkenik, berezia den beste faktore bat da kanpinaren kontzeptua berria dela, hiriarekin erabat lotuta dagoena, baina eredu guztiz jasangarria duena, proposamen guztiz berdea eta horizontalarekin, hiria bisitatu ondoren atseden hartu ahal izateko.

### **Udaltzaingoa**

Tokiko Gobernu Batzarrak Udaltzaingoaren antolaketa egituraren aldaketa eta lanpostuen zerrendan ondorengo aldaketak onartzea erabaki du:

- Atestatuen Unitateko agente lanpostuaren kopurua 5 agenteetan handitzea (aurrerantzean 35 izango ditu).
- Prebentzio Iraunkorreko Unitateko Agente lanpostuaren kopurua 4 agenteetan handitzea (aurrerantzean 177 izango ditu).
- Prebentzio Iraunkorreko Unitateko ofizialorde lanpostuaren kopurua handitzea (aurrerantzean 11 izango ditu).
- Udal Ordenantzak Kontrolatzeko Unitateko ofizialorde lanpostua kentzea (Prebentzio Iraunkorreko Unitateko ofizialorde lanpostu berri batean bihurtuko da)

Udaltzaingoaren Zuzendaritzak txosten bat egin du arloaren antolaketa egitura

# Prentsa oharra

## Nota de prensa



aldatzeko eskatuz, zuzendaritza horrek aurre egin behar dien behar berriak kontuan hartuta eta funtzionamendua hobetzeko asmoz.

Helburu horrekin, 2023rako onartutako udal aurrekontuak zuzkidura jasotzen du Udaltzaingoaren plantilla 9 agenteetan handitzeko, eta erabakia Udalbatzak onartu beharko du.

### **Bidebietako bidegorria**

Tokiko Gobernu Batzarrak onartu du Construcciones Moyua, SLri esleitzea Pasai San Pedro hiribidearen eta Bidebietaren arteko bizikleta bidearen proiektuaren eguneratuaren obren kontratua, 487.691 euroko aurrekontuarekin eta 4 hilabeteko egikaritze epearekin.

Proiektuak deskribatzen duen bezala, bidegorriaren ibilbidea Azkuene kaletik gertu hasten da, Donostiako udal eremuaren barruan, eta Pasai San Pedro etorbidetik igarotzen da (galtzada zatietatik eta espaloi zatietatik), Colombine kalera iritsi arte. Puntu horretan, koexistentzia gun e batetik igarotzen da, Bidebietako Joan XXIII etorbidearekin bat egin arte.

Luzera, guztira 455 metro ditu, eta lehenengo 300 metroetan txirrindularientzat bakarrik da, 2,50 metroko zabalera baitu ibilbidearen zatirik handienean. 300 eta 400 puntu kilometrikoen artean, sekzioa oinezkoen eta txirrindularien arteko koexistentzia da, eta azken 50 metroetan, garajeetara sartzen diren ibilgailu motordunekin ere badago koexistentzia bat.

Donostia, 2023ko ekainaren 13a